

Bi partiduko zerua

Euzkadi [Caracas], [1983-05].

Hau omen da orain pakearen garantiarik onena: berez sortu diren hainbeste alderdi edo alderdixka politikoen ordez, bi alderdi handi egin (egin, fabrikatu, esan dut) eta joango dira Espainiako Estatutik gure deabru guztiak.

Eta demokrazia bidean aurrera goazen seinalea da mugapen hau.

Lehen, partidu bakarreko organodun demokrazia baitzen!

Baina ba da hemen demokraziaren usainik ez duen zerbait: Demokrazian berezkoak sortzen dira, txiki edo handi, taldeko edo herriko, intereseko edo ideologikoak; ba ditu sistema honek hutsak, eta pekatu larriak ere, baina, tira, herriek berez ematen dituenak direnez, Lincoln bidean abiatu garela jakiteak ez du gaur poztasun txikia ematen. Aitzitik, demokrata fresko berri hoiek aginduz ezarri nahi diguten bi partiduko zeruak kiratsa dario: sorkuraz beraz: lehen pluralismoaren alde zegoen PSOEek beti eskuin puntatik zentralismoa ezarri duen frankismoaren buztita datorrelako.

Ezkontza berria beraz.

Ez da hau familia dexente bat izan eta hasteko pareja!

Honek esan nahi du Estatuko nazionalitateentzat, bi ezkonberriak bat datozela gainontzeko alderdi eta alderdixka guztiekin batera gure herriak ere bi zilindro hoiek osatu duten galgaz kanpo geratzen diren guztiak txirbil erregarri bihurtzeko.

Hau demokratikoa ez da.

Ez da, noski; baina ezta behar ere; pakearen garantia ematen duten betikoak eta ZENen laguntza desinteresatua berekin dutela, hemen ez da demokrazi berri hori zalantzan jarriko duenik! Honela uste dute, noski, Espainiako bi agintari berriak.

Ez dute, nonbait, Estatuarentzat "minoría" diren batzu, *Herriak* direla kontuan hartu.

Eta huts handi bi egin dituzte: bat, herriei, "minoría" sail gisa neurtzea, eta bi partidu nagusi hoien ezkontzeko ezti-aldiak dagoeneko kontatuta dagozelako. Zeruan bertan ere bikote horrek ez zuen irau: deabru zuria handik botea, egotzia izan zen.

Geroztik hemen dabil lan ederrak ematen.